

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sestaoko Udala****Hutsik dauden plazak jabetzan betetzeko Deialdi publikoaren Oinarriak Aldatzea.**

Giza Baliabideen Ordezkar den Bigarren Alkateordeak, 2018ko irailaren 12ko Dekretu bidez, honako hau xedatu du:

Bigarren Alkateordearen 2018ko maiatzaren 25eko Dekretu bidez onartutako oinarriak aldatzea, 2018ko abuztuaren 27ko 164. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak, jarraian adierazitako eran:

1. HIRUGARREN OINARRIA*— Esaten denean:*

«Eskabideak modelo ofizial formalizatuarekin bat egingo dira. Hori hautagaiei Sestaoko Udalaren Udaletxeko (Kasko plaza) Udal Erregistroaren Bulegoan emango zaie. Eskabidea Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaio 20 egun naturalez. Epea deialdiaren iragarkia «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Eta baita 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4. artikuluan adierazten duen edozein bulegotan.»

— Hau esan behar du:

«Eskabideak modelo ofizial formalizatuarekin bat egingo dira. Hori hautagaiei Sestaoko Udalaren Udaletxeko (Kasko plaza) Udal Erregistroaren Bulegoan emango zaie. Eskabidea Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaio 20 egun baliodunez. Epea deialdiaren iragarkia «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Era berean, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4. artikuluan adierazten duen eran eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikulua, urriaren 1eko 39/2015. Legearen laugarren xedapen gehigarriaren eta xedapen indargabetzaile bakarraren arabera, ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.»

2. HAMARGARREN OINARRIA*— Esaten denean:*

«Proposatutako hautagaiek Sestaoko Udaleko Giza Baliabideen Sailean aurkeztuko dute, gaindituen zerrenda argitaratu eta 30 egun naturalen buruan hautespen-prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eta eranskinetan eskatzen diren dokumentuak eta zehatz-mehatz esanda honakoak:

— Hau esan behar du:

«Proposatutako hautagaiek Sestaoko Udaleko Giza Baliabideen Sailean aurkeztuko dute, gaindituen zerrenda argitaratu eta 30 egun baliodunen buruan hautespen-prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eta eranskinetan eskatzen diren dokumentuak eta zehatz-mehatz esanda honakoak:

3. BOSGARREN OINARRIA, 2. ERANSKINAREN, A) ATALA, 3. PUNTUA*— Esaten denean:*

«Euskararen ezagutza-proba gai edo ez-gai bezala kalifikatuko da eskakizun bakoitzaren kasuan eta hurrengo puntuazioak emango dira:



- 1. hizkuntza-eskakizuna: 1,50 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 2,50 puntu.»

— *Hau esan behar du:*

«Euskararen ezagutza-proba gai edo ez-gai bezala kalifikatuko da eskakizun bakoi-tzaren kasuan eta hurrengo puntuazioak emango dira:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 1,00 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 2,00 puntu.»

4. BOSGARREN OINARRIA, 3. ERANSKINAREN A) ATALA, 3. PUNTUA

— *Esaten denean:*

«Euskararen ezagutza-proba gai edo ez-gai bezala kalifikatuko da eskakizun bakoi-tzaren kasuan eta hurrengo puntuazioak emango dira:

- 1. hizkuntza-eskakizun: 2,50 puntu.»

— *Hau esan behar du:*

«Euskararen ezagutza-proba gai edo ez-gai bezala kalifikatuko da eskakizun bakoi-tzaren kasuan eta hurrengo puntuazioak emango dira:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 2,00 puntu.»

Ebazpen hori argitaratzea indarrean dauden lege-xedapenei jarraiki.

Sestaon, 2018ko irailaren 12an. — Bigarren Alkateordea, Giza Baliabideen ordezkaria